Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hirigintza Sostengagarria
Urbanismo Sostenible
San Martin, 48 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus
20005 Donostia / San Sebastián

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, OSTATU ERABILERAK ARAUTZEKO DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA IDAZTEKO LANAK KONTRATATZEKO, INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA IZAPIDETZEKO DOKUMENTAZIOA BARNE.**

## I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko dokumentuaren fase guztiak idaztea, ostatu erabilerak ezartzea arautzeko udalerriaren mugarte osoan. Kontratu honen xede diren prestazioak behin betiko onarpen dokumentua eta legez izan behar den dokumentazio guztia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (osorik argitaratu arte) eta Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzeko behar den dokumentazioa entregatutakoan amaituko dira. Halaber, kontratuaren barruan da ingurumen ebaluazio estrategikoa, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa eta ebaluazio soziolinguistikoa egiteko behar den dokumentazioa idaztea ere.

## II.- EGIN BEHARREKO LANEN EDUKIA ETA PROGRAMAZIOA

Kontratua hartzen duen enpresak lan eta dokumentu hauek egin eta idatzi behar ditu:

### 1.- Sarrera

Egin beharreko dokumentu guztien eduki substantiboa indarrean den araudiak agindutakora egokitu behar du, Baldintza Teknikoen Agiri honetan aurreikusitako ñabardurekin eta zehaztapenekin.

### 2.- Aurrerapenik behar ez izatea.

**Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 87.1** artikuluaren arabera, ez da aurrerapen dokumenturik izango.

### 3.- Herritarren partehartzea:

**Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikuluaren** arabera, kontratua hartzen duen enpresaren eginkizuna izango da gero onartu beharko den herritarren partehartze programan eskatutako laguntza ematea eta han eskatutako dokumentazioa prestatzea.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

**4.- Ingurumen Dokumentu Estrategikoa (IDE) eta zirriborroa.**

Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren edukiak 2013ko abenduaren 9ko Ingurumen Ebaluazioari buruzko **21/2013** Legearen 29. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren gaineko **10/2021** Legean araututakoa bete behar du, eta, gutxienez, atal hauek izan behar ditu:

a) Plangintzaren helburuak.

b) Proposatutako planaren eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko alternatiben irismena eta edukia.

c) Planaren edo programaren garapen aurreikuspena.

d) Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak, eragindako lurralde-eremuak plana edo programa garatu aurretik dituenak.

e) Aurreikus daitezkeen ingurumen-ondorioak eta, hala badagokio, haien kuantifikazioa.

f) Sektoreko eta lurraldeko plan konkurrenteetan aurreikus daitezkeen ondorioak.

g) Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko arrazoia.

h) Aurreikusitako aukerak hautatzeko arrazoien laburpena.

i) Plana edo programa aplikatzeak ingurumenari ekartzeko moduko edozein ondorio txar adierazgarri prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusitako neurriak, klima aldaketa kontuan hartuta.

j) Planaren ingurumen jarraipena egiteko aurreikusitako neurrien deskribapena.

**5.- Ingurumen azterketa estrategikoa.**

Baldin eta, 2013ko abenduaren 9ko **Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 31.2.b) artikuluan** xedatutakoaren arabera, ingurumen organoak erabakitzen badu ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeela eta, beraz, planak edo programak ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta izan behar duela, ingurumen azterketa estrategikoa idatzi beharko du enpresa esleipendunak, irismen dokumentuan oinarrituta.

**6.- Hasierako onarpena emateko dokumentua.**

Egin beharreko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura egin eta udalerrian ostatu erabileren gainean den egoeraz egin beharreko azterketa eta diagnostikoa aintzakotzat hartuta, hasierako onarpena emateko izan behar den dokumentazioa idatzi behar du kontratua hartzen duen enpresak, diren lege xedapenek eskatutako eduki guztia izango duen dokumentazioa.

**7.- Alegazioei buruzko txostena.**

Enpresa esleipendunaren eginbeharra izango da dokumentazio hori jendaurrean jarrita izatea erabakitako epean aurkeztutako alegazioen gaineko balorazio txostena egitea.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

**8.- Behin-behineko onarpena emateko dokumentua.**

Aurkeztutako alegazioak eta espedientean diren gainerako txostenak aztertutakoan, behin-behineko onarpena emateko dokumentua idatzi beharko du kontratua hartuta duen enpresak.

**9.- Behin betiko onarpena emateko dokumentua.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeak haren txostena egindakoan, behin betiko onarpena emateko dokumentua edo dagokion testu bategina idatzi beharko du enpresa esleipendunak.

**10.- Lanen programazioa.**

| EGIN BEHARREKO LANAK | PROGRAMAZIOA |
|---|---|
| Herritarrek parte hartzeko saioa | Hilabete, formulazio-akordioa egin eta gero |
| IDE eta zirriborroa egitea | 3 hilabete, herritarrek parte hartzeko saioa egin eta gero |
| Hasierako onarpena emateko dokumentua egitea | 3 hilabete, ingurumen-organoak erabakia hartutako egunetik aurrera |
| Alegazioen gaineko txostena egitea | Hilabete, jendaurrean jarrita izateko epea pasatutako egunetik aurrera |
| Behin-behineko onarpena emateko dokumentua egitea | 2 hilabete, Plangintzako Aholku Batzordearen bilera izaten den egunetik aurrera |
| Behin betiko onarpena emateko dokumentua egitea | 2 hilabete, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordearen ziurtagiria jasotako egunetik aurrera |

**11.- Ekinaldi horietako bakoitzari dagokion dokumentazioa aurkeztea.**

* Kontratu honen xede diren dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.

* Fitxategi guztiak Udalaren sistema informatikoekin uztartzeko modukoak izan behar dira (Autocad, Word, Excel, Access, Power Point).

* Informazio grafikoak ETRS89 erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoan eta UTM koordenatuen sisteman izan behar du, eta Alacanteko -UTM zone 30N- (EPSG: 25830) mareografoko itsasoaren batez besteko maila erreferentzia altimetrikoko sistemak.

* Egin beharreko dokumentuen bi (2) kopia paperean eta beste bat (1) euskarri informatikoan aurkeztu behar dira.

**12.- Udalak eskura duen eta/edo eman behar duen dokumentazioa.**

* Udal kartografia, lanak egiteko behar den eskalan.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

* Udalerrian indarrean dagoen lurralde- eta hirigintza-plangintza, euskarri digitalean.

* Udalaren artxibo eta datu-baseetan ostatu erabilerez den informazioa.

* Udalerriaren egoera sozioekonomikoaren gaineko informazioa, plana generoaren ikuspegitik ebaluatzeko izan behar den informazioa ere sartuta.

* Udalerriaren egoera soziolinguistikoari buruzko informazioa.

## III.- ERREDAKZIO TALDEAREN OSAERA ETA BETEBEHARRAK.

### 1.- Erredakzio taldearen gutxieneko osaera.

Honako hauek, behintzat, osatu behar dute erredakzio taldea:

A.- Arkitekto bat (1).

Gutxienez baldintza hauek bete behar ditu:

a) Esperientzia izatea 30.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren bateko hirigintza plangintza orokorra, berrikuspen partziala edo aldaketa puntuala egiten. Lan horiek behin betiko onartuta izan behar dute proposamenak aurkezteko eguna baino lehen.

Gainera, jarraian adierazitako erantzukizunak hartu beharko ditu bere gain:

a) Lanak egiten parte hartzea, eta horiek egiteko erantzukizun teknikoa bere gain hartzea, erredakzio taldeari dagokionez.

B.- Aholkulari juridiko bat (1):

Gutxienez baldintza hauek bete behar ditu:

a) Esperientzia izatea 30.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren bateko hirigintza plangintza orokorra, berrikuspen partziala edo aldaketa puntuala egiten. Lan horiek behin betiko onartuta izan behar dute proposamenak aurkezteko eguna baino lehen.

Gainera, jarraian adierazitako erantzukizunak hartu beharko ditu bere gain:

a) Haren zeregin eta erantzukizunen artean dago indarrean den legeria betetzen dela zaintzea.

C.- Ingurumen-teknikari bat (1). Espezialitatea: Biologia, Nekazaritza eta Basogintzako Ingeniaritza, Ingurumen Zientziak, Geografia edo horien balio bereko lanbide-kualifikazioa duena.

Gutxienez baldintza hauek bete behar ditu:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría



a) Esperientzia izatea 30.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren bateko hirigintza plangintza orokorra, berrikuspen partziala edo aldaketa puntuala egiteko Ingurumen Ebaluazioa Estrategikoa egiteko lanak egiten. Lan horiek behin betiko onartuta izan behar dute proposamenak aurkezteko eguna baino lehen.

Gainera, jarraian adierazitako erantzukizunak hartu beharko ditu bere gain:

a) Ingurumen dokumentu estrategikoa edo, hala badagokio, ingurumen azterketa estrategikoa egitea.

D.- Koordinatzaile bat (1):

Enpresa esleipendunak aurretik azaldutako arkitektoa edo aholkulari juridikoa izendatu beharko du koordinatzaile.

Koordinatzaile izendatutako pertsonak, aurretik aipatutako baldintzez gain, gutxienez C1 euskara maila izan beharko du.

Erredakzio taldearen osaera egiaztatzeko, lanpostua, titulazioa eta esperientzia zehazten dituen zerrenda zehatza aurkeztu beharko da, bai eta curriculuma eta dagozkien titulazioak ere.

Kontratuaren xede diren prestazio hauek egiteko gutxienez izan behar den hiru pertsonako profesional taldeak eginda izan behar dituen lanak egiaztatzeko, lan haietan jardundako udal administrazioaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, dena delako hirigintzako tresnak behin betiko onartuta izan behar du eta profesional horiek haietan parte hartu dutela ere jarri behar du egiaztagiriak.

Profesional horiek lehen esandako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, balio izango du lan horiek egiten profesional indibidual gisa edo ABEE edo bestelako enpresetan arituta egitea.

Halaber, enpresa esleipendunak bermatu beharko du euskara, gaztelania bezala, zerbitzu-hizkuntza izango dela ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan, bai udal-langileekiko harremanetan eta baita herritarrekiko harremanetan ere.

**2.- Gutxieneko erredakzio taldea bete eta egiztatzea.**

Esleipendun gisa proposatutako enpresak, esleipenaren aurretik eta horretarako baldintza gisa, kontratuaren exekuzioari atxikitako taldearen izenen zerrenda aurkeztu behar du (Erredakzio taldearen gutxieneko osaera epigrafeko 1 puntuan adierazitako eran osatua izan behar du zerrendak), haien curriculum profesionalarekin eta eskatutako profila eta esperientzia egiaztatzen dituen dokumentazio osagarriarekin batera.

Gutxieneko erredakzio taldea egiaztatzea kaudimen teknikoko irizpidea da (**Agiri Administratiboko III. Gehigarria**n arautua). Lantalde hori ez baldin bada epean betetzen edota egiaztatzen, ez zaio kontratua esleituko.

Esleipendunak gutxieneko lan-taldea (eskatutako perfilekin) kontratu osoan zehar atxiki beharko du zerbitzura. Hau funtsezko kontratu betebeharra da eta, honenbestez, hau ez betetzea kontratua suntsitzeko kausa izango da.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

**3.- Erredakzio taldearen koordinatzailea eta haren betebeharrak.**

A.- "1.A" eta "1.B" ataletan aipatutako profesionaletako edozeinek hartuko du erredakzio taldearen koordinatzaile lana.

B.- Eginkizun eta erantzukizun hauek izango ditu hark:

* Udalaren aldetik lan hauek zuzenduko dituztenekin lan egiteko eta bilerak egiteko egutegia eta metodologia proposatzea, eskaintzan proposatutakoa garatuz.

* Izapidetu beharreko dokumentuak behar bezala egiten direla kontrolatzea eta kudeatzea.

* Taldeko pertsona guztien koordinazioa kudeatzea.

* Kontratuaren arduradunarekin solaskidetza lanak egitea.

**4.- Lanen zuzendaritza.**

Esleipendunarekin sinatu beharreko kontratuak dakartzan lan hauek Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengarriko Zuzendaritzak gainbegiratuta egingo dira. Zuzendaritza eta gainbegiratze lan horien artean, besteak beste, alderdi hauek sartzen dira:

* Agiri honetan eta esleipena hartzen duenarekin egindako kontratuan jarritako irizpideen osagarri diren lan irizpideak zehaztea.

* Lanak egiteko prozesua, lanen kalitatea eta proposatutako helburuak jarritako epeetan betetzen diren fiskalizatzea, eta haiek behar bezala betetzeko hartu behar diren erabakiak hartzea, hartu beharrik bada.

* Hala badagokio, entrega partzialak eta, entregatu ondoren, lan guztiak kontrolatzea, fiskalizatzea eta jasotzea, eta, hala badagokio, zuzendu beharreko akatsak identifikatzea.

Hirigintza Sostengarriko Zuzendaritzak kontratuaren xedearekin zerikusia duen informazio guztia emango dio enpresa esleipendunari; zehazki, lanak hartzen duen lurraldearen kartografia, indarrean den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (editatzeko moduko euskarri informatikoan), eta orain arte egin diren dokumentu grafiko guztiak (bakoitzari dagokion formatu editagarrietan).

**5.- Lanak baliozkotzat jotzea.**

Lanak zuzen eginda dauden edo ez dauden, kontratuaren arduradunak egindako txosten teknikoen bidez aztertuko da. Dokumentuak aipatutako txostenen arabera aztertu eta zuzendutakoan, behin betiko dokumentuak entregatu behar ditu enpresa esleipendunak, zuzendaritzak dokumentu horien irismenaren arabera jarritako epeetan entregatu ere.

Behin betiko agiriek Udalak beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak izan behar dituzte (idatzizkoak, grafikoak eta ikusizkoak), egindako azterlana behar bezala ulertu eta aurkeztu ahal izateko behar direnak.

Dokumentu horien aurkezpena agiri honetan jarritako eran izango da.

**6.- Eskubideak lagatzea eta erabiltzea.**

Kontratu hau betetzeko egindako dokumentazioa Donostiako Udalarena besterena ez da izango da, eta Donostiako Udalak izango du dokumentazio hori erreproduzitu, argitaratu eta, osorik edo parte bat, irizten dion eran, zabaltzeko eskubidea; egilea enpresa esleipenduna dela adierazita, betiere.

SPKLren 308. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartuta, jabetza intelektual edo industrialeko eskubidearen bidez babestutako produktuak garatzeko eta eskura jartzeko zerbitzu kontratuek eskubide hori administrazio kontratatzaileari eman beharra dakarte.

Horretarako, kontratu hau hartzen duen enpresak azterlan hori ustiatzeko eskubide guztiak eman dizkio Udalari, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak eta SPKLren 308. artikuluak jarritakoa aintzakotzat hartuta.

Donostia, 2022ko urriaren 26a.

HIRIGINTZA SOSTENGARRIKO ZUZENDARIA

Izpta.: Juan Antonio Chávarri Sarasua

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2022 AZA. NOV 02

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Jon Chavarri Sarasua (26/10/2022 10:40 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : fa57b9d4-09a9-4825-a69b-6da7206f9e17